

GOBERNU BATZARRA

2017 07 03

Alkatea:	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko uztailearen hiruan, 08:00etan, Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
Olatz Peon Ormazabal	
Zinegotziak:	
Patxi Amantegi Zubiria Nerea Letamendia Belloso Jokin Azkue Arrastoa	1.- Aurreko akta onartzea. 2.- Merkataritza, Ostalaritza, Turismoa eta Feriak dinamizatzeko kontratuaren luzapena.
Beh. Beh. Idazkaria:	3.-Tolosako Udalak Tolosaldeko Mankomunitateari egin beharreko ekarpen ekonomikoa. 2017ko martxoa, apirila eta maiatzako fakturak.
Karmele Contreras Goikoetxea	
Kontuhartzaitza:	4.- Tolosako “Berazubi auzo elkarteko lokala Birgaitzeko” obren 1. ziurtagiria.
Ainhoa Molinos Zubiaurre	5.-36-37/2017 zenbakia duten faktura-zerrendak.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2017ko ekainaren 26an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Merkataritza, Ostalaritza, Turismoa eta Feriak dinamizatzeko kontratuaren luzapena.

Bi mila hamaseiko maiatzaren 30ean egindako Gobernu batzarrean onartu ziren Tolosako merkataritza, ostalaritza, turismoa eta feriak dinamizatzeko zerbitzua kontratatzeko baldintza administratibo partikularrak.

El 30 de mayo de 2016, mediante acuerdo de la Junta de Gobierno, se aprobó el pliego de cláusulas administrativas particulares para la contratación del servicio de dinamización en las área de comercio, hostelería, turismo y ferias de Tolosa.

Prozedura tramitatu ondoren, 2016ko uztailaren 26an egindako Gobernu batzarrak, kontratuaren adjudikazioa egin zuen.

Bi mila eta hamaseiko abuztuaren 16an, Tolosako Udalak Ikertalde Grupo Consultor, S.A. enpresarekin, Juan José de Andrés Gils bere ordezkari denaren bidez, ondorengo kontratua sinatu zuen: ostalaritza, turismoa eta ferien dinamizazio zerbitzua aurrera eramatea. Kontratuaren epea urtebetekoa zen, beste urtebete luzatzeko aukera zuelarik.

Bi mila eta hamazazpiko ekainaren 20an, Ikertalde Grupo Consultor, S.A. enpresak aurkeztutako idatzi batek izan zuen sarrera Tolosako Udaleko erregistroan. Bertan, klausula administratiboen 4. eta 5. artikulua diotenaren arabera, kontratua urtebetez luzatzea eta prezioa berrikustea eskatzen du.

Hau dena aintzat harturik, espedientean agertzen diren txostenak ikusita eta behin behineko Idazkariak egin duen proposamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA Tolosako merkataritza, ostalaritza, turismoa eta feriak dinamizatzeko zerbitzuaren kontratua Ikertalde Grupo Consultor, S.A. enpresarekin urtebetez luzatzea, 2018ko abuztuaren 31rarte eta Kontuhartzailtzak ezarten duen prezioarekin.

BIGARRENA.- Erabakia interesatuari eta Merkataritza, Feriak eta Turismoa eta Kontuhartzailtza departamentuei jakinaraztea.

El 26 de julio de 2016, una vez tramitado el correspondiente procedimiento, era adjudicado dicho contrato mediante acuerdo de la Junta de Gobierno.

El 10 de agosto de 2016, el Ayuntamiento de Tolosa firmó con la empresa Ikertalde Grupo Consultor, S.A. a través de su representante legal D. Juan José de Andrés Gils el contrato de servicio de dinamización en las áreas de comercio, hostelería, turismo y ferias de Tolosa. Dicho contrato tenía una duración de un año, prorrogable por otro año más.

El 20 de junio de 2017 tiene entrada en el registro de este Ayuntamiento, escrito por el que el representante de Ikertalde Grupo Consultor, S.A., en base a los apartados 4 y 5 del pliego de cláusulas administrativas, solicita la prórroga del contrato por un plazo de un año y la revisión del precio.

En base a todo ello, vistos los informes técnicos obrantes en el expediente y de conformidad con la propuesta emitida por parte de la Secretaria Acctal, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ACUERDA

PRIMERO.- Prorrogar el contrato de servicio de dinamización en las áreas de comercio, hostelería, turismo y ferias de Tolosa suscrito con la empresa Ikertalde Grupo Consultor, S.A., hasta el día 31 de agosto de 2018 y fijar el precio que se señale en el informe de intervención.

SEGUNDO.- Comunicar el presente acuerdo al interesado y a los departamentos de Comercio, Ferias y Turismo y de Intervención.

3.-Tolosako Udalak Tolosaldeko Mankomunitateari egin beharreko ekarpen ekonomikoa. 2017Ko martxoa, apirila eta maiatzako fakturak.

Tolosaldeko Mankomunitatearen Osoko Bilkurak 2014. ekitaldian mankomunitateko gastuei aurre egiteko udalek egin behar dituzten zehazteko irizpide berriak onartu zituen. Irizpide hauek bilketa sistema desberdinen existentzian dute oinarria eta zati finko bat eta zati aldakor bat finkatzen dira. Zati finkoa, komunean dauden gastuei aurre egiteko, eta zati aldakorra, udalek jasotzen dituzten zerbitzuen kostuetan oinarrituta.

2016ko abenduraren 19an Tolosaldeko Mankomunitateko Batzarrak 2017ko ekitaldiko aurrekontua onartu zuen, non ekitaldiko gastuen eta sarreraren xehetasunaz gain, udalen ekarpen finkoen banaketaren berri eman zen.

2017ko apirilaren 10ean, Gobernu Batzarrak Tolosaldea Mankomunitateari ordaindu beharreko ekarpen finkoa onartu zuen.

Gastu estrukturalak	189.307,00
Bilketa gastuak	881.589,00
Tratamendu gastuak	35.920,00
Guztira	1.106.816,00

Bestalde, Tolosaldea Mankomunitateak ondorengo fakturak aurkeztu ditu.

2017 Martxoa	70.660,57
2017 Apirila	117.434,08
2017 Maiatza	121.011,66

Aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA: Onartzea Tolosaldea Mankomunitateak aurkeztutako ondorengo fakturak:

2017 Martxoa	70.660,57
2017 Apirila	117.434,08
2017 Maiatza	121.011,66

BIGARRENA: Erabakiaren berri ematea Kontuhartzaitzari , Ingurumena, Auzoak, Obrak eta Zebitzuen departamentuari eta Tolosaldeko Mankomunitateari.

4.- Tolosako “Berazubi auzo elkarteko lokala Birgaitzeko” obren 1. ziurtagiria.

Tolosako Udalak Construcciones Francisco Aierbe, S.L., enpresari esleitu zion “Berazubi auzo elkarteko lokala birgaitzeko” proiektuan jasotako obren kontratua, 97.250,40 € (BEZa

barne) izan zelarik esleipenaren zenbatekoa.

Orain, lehenengo ziurtagiria aurkeztu du.

Ziurtagiri zenbakiaFaktura zenbakia..... Zenbatekoa

1. ziurtagiria (%21eko BEZa)..... 18..... 97.250,40€

Ziurtagiria honek obrako zuzendaritzaren eta udal arkitektoaren oniritzia jaso duenez, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Tolosako "Berazubi auzo elkarteko lokala birgaitzeko" proiektuan jasotako obren 1. ziurtagiria. Zenbatekoa: 97.250,40 € (BEZ barne).

BIGARRENA.- Fakturaren ordainketa egitea.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Construcciones Francisco Aierbe,S.L., enpresari eta Kontuhartzaitzari.

5.- 36-37/2017 zenbakia duten faktura-zerrendak.

Kontuhartzaitzak **36/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **114,70** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **36/2017** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

.....

Kontuhartzaitzak **37/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **277.803,35** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 37/2017 faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

.....

Eta besterik gabe, bilera amaituzat jo da 10:00etan.

ALKATEA

Beh. Beh. IDAZKARIA